

Elikadura orekatua eta jasangarria 102-11; 417-1

Osasunarekin dugun konpromiso ukaezina dela eta, saltzen ditugun produktuen elikadura-segurtasuna bermatu baino gehiago egiten dugu. Hori dela eta, egunero dihardugu kontsumo aukera orekatuagoak eta osasungarriagoak eskaintzeko eginkizunean. Horretarako, produktuen fitxa teknikoak berrikusi eta hobetzen ditugu, osasun adituek egindako gomendioei jarraiki.

Produktuaren nutrizio-mailaren hobekuntza

EROSKIn lan egiten dugu gure produktuen osaera nutrizio-profila hobetzeko behin betiko. Oreka handiagoko produktuak bilatzearen poderioz, gure gizarteko patologia orokorrenak sorrazten dituzten mantengaiak gutxitu ditugu (bihotz-biriketako gaixotasunak eta gizentasuna). 2019az geroztik, 60 erreferentzia birformulatu ditugu helburu horrekin. Ondorioz, gure marka propioaren % 70ak A, B edo C balorazioa du Nutri-Score etiketan.

Gainera, marka propioko 44 erreferentzia birformulatu ditugu "Elikagaien eta Edarien Osaera Hobetzeko Lankidetzaren Plana eta 2020ko beste neurri batzuk" programaren barruan hartutako konpromisoaren parte gisa, Elikadura-segurtasuneko eta Nutrizioko Espainiako Agentziaren (AESAN) Nutrizioa, Jarduera Fisikoa eta Obesitatearen Prebentzioa (NAOS) estrategiaren barruan. Helburua da % 10era murriztea azukre erantsiak, gantz aseak eta gatzak 2020rako.

Horrez gain, 2019an, palma eta koko gantzak ere ezabatu ditugu marka propioko 64 erreferentzian, eta aurrerapauso bat egin dugu 2021erako dugun helburua betetzeko: marka propioko produktuetako gantz horien % 100 kentzea.

2019an, 264 produktu ditugu gantz gutxirekin, 65 azukre gutxirekin, 29 gatz gutxirekin eta 260 zuntz askorekin.

Ekimen horiek praktikan jartzeaz gain, berrikuntzak kontsumitzaileei helarazten saiatzen gara, baita produktuen etiketei dagokien informazioa ere.

2007an, Espainian lehen banaketa-enpresa izan ginen bere produktuetan olio eta landare gantz partzialki hidrogenatuak kentzen (trans gantzen iturri direnak).



Produktuek nutrizio eta oreka aldetik dakarten informazioa

416-2; 417-2

EROSKI badakigu kontsumitzaileei ematen diegun informazioa zein garrantzitsua den haien interesak zaindu eta babesteko; izan ere, horrela bakarrik har ditzakete haien beharren arabera erabaki informatuak. Hori dela eta, informazio zabala, osatua eta egiazkoa eskaintzen dugu edukiari buruz, baita elikadura osasungarria izatearen garrantziari buruzkoa ere.

Uneoro betetzen dugu etiketatzeari buruz dagoen araudia produktu bakoitzean eta gure marka propioaren eskakizunekin. Informazio gehigarria eskaintzen dugu piktogramen bidez alergenok errazago identifikatzeko, baita nutrizio-informazioa eskaintzen duten sistemak ere, hala nola nutrizio-semafora edo Nutri-Score. 2019an, 1.446 produkturen fitxa teknikoak berrikusi dugu bere Nutri-Score etiketa eta nutrizio-semafora kalkulatzeko.

Informazio falta dela-eta arrisku sanitarioan sartzen bagara, produktua berehala kentzen dugu salmentatik. Ikuskapen horiek eginda eta kontsumitzaileei entzunda, informazioa etiketan txerta dezakegu, bezeroek ulertzea errazagoa izan dadin.

Etiketaz gain, eskuorri, dendako kartel eta webguneko informazioa hobetzeko ari gara lanean. Hala, haurrentzako produktuen publizitatea egokitu egin dugu PAOS Kodera ("Adingabeei zuzendutako elikagaien Autoarautze Kodea eta Gizentasunaren eta Osasunaren Prebentzioa"), zeina Elikadura-segurtasuneko eta Nutrizio Espainiako Agentziaren NAOS estrategian ere badatorren.

EROSKIren nutrizio-informazioaren sistema aurreratua: Nutri-Score eta nutrizio-semafora

Aitzindariak izan ginen 2018an 10.000 pertsonari entzun ostean Nutri-Score etiketak ezarri genizkienean marka propioko produktuei, eta merkatuan bakarra zen nutrizio-eredu sortu genuen. Horri esker, kontsumitzaileek modu errazean ezagut dezakete produktu bakoitzaren nutrizio-balorazio orokorra, antzekoekin alderatzeko eta onena aukeratzeko, nutrizio-semaforoak eskaintzen duen mantenugai bakoitzari buruzko informazio zehatza galdu gabe.

2019an, Nutri-Score etiketa gehitu dugu dendetako gure marken produktu guztietan, baita 773 produkturen ontzietan eta Bezero Bazkideei proposatutako otordu osasungarrietan errezeta guztietan ere.

Nutri-Score etiketatua, Osasun Ministerioak onartua, grafiko edo semaforo bat da, ontziratutako elikagaiak sailkatzen dituen bost hizki eta koloreen arabera, bere nutrizio-osaera oinarri hartuta: A berde iluna eta B berde argia (osasuntsuenentzat) izatetik, D laranja eta E gorria izatera (nutrizio-kalitate txikiena). C hizkia, berriz, horia da, eta erdibidekoa da. Produktu bakoitzaren hizkia kalkula-

tzen da baliabide zientifiko berretsitako algoritmo baten bidez. Algoritmorako balio negatiboak izango dira kaloriak, azukreak, gantz aseak eta gatzak; positiboak, berriz, zuntz-maila, proteina, eta fruta, barazki, fruitu lehor eta lekale kantitatea, produktuaren 100 gramo bakoitzeko. Horrela, kontsumitzaileek antzeko elikagaiak aldera ditzakete erosketa egitean edo produktu beraren nutrizio-kalitatea aztertu hainbat marka alderatuta.

Nutri-Score etiketak nutrizio-semaforo osatzen du, 2007tik erabilgarri gure marka propioko produktuetan. Tresna honi esker, dietaren kaloriak, gantzak, azukrea edo gatzak kontrolatzea errazagoa da, osasun arazoirekin batentatik hala behar bada (diabetesa, hipertentsioa, gainpisua...). Modu horretan, elikagai bakoitzak duen mantenugai kantitatea ikus daiteke, eta kantitate hori gutxi, normala edo asko den. Nutri-Score etiketaren antzera, kolore-sistema ontziaren aurrealdean dago befi. Osasunean eragina duten kaloriei eta lau mantenugai nagusiei buruzko informazioa eskaintzen digu (gantzak, gantz aseak, azukrea eta gatzak), errazio bakoitzeko.



NAOS saria

EROSKI bigarren aldiz jaso du NAOS Estrategia saria Enpresa Ekimenik onena kategorian, elikadura osasungarriarekiko duen konpromisoa dela eta: EKILIBRA programa. Horri esker, kontsumitzaileari nutrizio-diagnostiko pertsonalizatua eskaintzen zaio, doan.

Sari hauek jasotzea NAOS estrategiaren barruan dago, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioi Elikadura-segurtasuneko eta Nutrizio Espainiako Agentziaren (AESAN) bidez ekimenak bultzatzeko helburua duena gizentasunaren eta eratorritako beste gaixotasun kroniko batzuen prebentziorako, elikadura osasungarri eta jarduera fisikoa modu erregularrean eginda.

Erosketetan oinarritutako nutrizio-informazioa

EROSKI Clubek osasun arloko programa aitzindari bat du, eta doan eskaintzen ditu informazio pertsonalizatua eta pizgarriak, gure Bezero Bazkide guztiek elikadura eta erosketa osasungarriagoa eta orekatuagoa izan dezaten. 2019an, 28.000 pertsonak erabili zuten nutrizio arloko zerbitzu hori; zerbitzua EROSKI Club txartela erabiltzen dutenen erosketak erregistratzen ditu eta horren arabera da.

Informazio horrek analisi xehe eta pertsonalizatu bat ematen du, etxeko erosketa dieta mediterraneora nola doitzen den ezagutzeko. Haren helburua da bezeroa orientatzea elikagai buruz: zein kopurutan eta maiztasunekin erabili, bai berak baita etxeko gainerako kideek ere, elikadura orekatua izateko.

Gainera, 2019an zehar, EROSKI Clubek aldizka osasunarekin erlazionatutako informazioa eta jarduerak bidali dizkie 250.000 bazkideri, eta 32.000 bazkidek baino gehiagok parte hartu dute elikadura osasungarriarekin erlazionatutako erronketan.

